



EBAZPENA, 2022ko otsailaren 8koa, Hezkuntza Sailaren Langileak Kudeatzeko zuzendariarena; honen bidez, oposizio-lehiaketa gainditu duten izangai hautatuen behin-behineko zerrendak argitara ematen dira (Hezkuntza sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan)

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez (2020ko otsailaren 27ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurak deitu ziren.

Aipatutako Aginduaren 10.1.1 eta 10.2.1 oinarriek zehazten dutenarekin bat etorriz, aldi bakoitzeko puntuazioak atera eta ponderatu ondoren, Hautaketa batzordeek lehiaketa-faseko puntuazioak gehituko dizkiete oposizio-fasean lortutako puntuazioei azken fase horretan eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu duten izangaiei, eta ordenatu egingo dituzte, prozedura, txanda eta espezialitate bakoitzean, lortutako puntuazio globalaren arabera. Eta hautatuak izango dira aukeratutako prozeduran, txandan eta espezialitatean deitutako lanpostu-kopuru osoaren berdina edo txikiagoa den hurrenkera zenbakia badute.

Aipatutako Hezkuntza sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren 10.3 oinarriak zehazten duenarekin bat etorriz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduretan oposizio-lehiaketa gainditu duten izangai hautatuen behin-behineko zerrendak (Hautaketa-prozedurak Hezkuntza sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitu ziren).

Bigarrena.- Oposizio-lehiaketa gainditu duten izangai hautatuen behin-behineko zerrendak ondorengo lekuan emango dira argitara:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira):
«2020ko EPE. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa. Sartzeko eta iristeko prozedurak» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Hautespen Batzorde» – «Deituren arabeko zerrenda» / «Puntuazio arabeko zerrenda» / «Aukeratze arabeko zerrenda» (hautatutako izangaiek «Adjudikazio» zutabean «2HE/PL2» dutenak dira)

Hirugarrena.- Behin-behineko zerrenda hauen aurka izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute, egon daitezkeen akatsengatik, bi laneguneko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Erreklamazioak aurkeztuko dira <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira) – «2020ko EPE. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa. Sartzeko eta iristeko prozedurak» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Hautespen Batzorde» - «Erreklamazioak»; «Erreklamazio-orria» eredia beteko da, Interneteko helbide horretan eskuragarri egongo dena.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko otsailaren 8an
Langileak Kudeatzeko zuzendaria,

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO